

# HERNANIK • kronika

2004 urtea  
Apirilak 14  
**Asteazkena**  
Alea: 1077  
**www.kronika.net**



**Dantza talde guztiak Ikurrina Dantza egiten, iazko dantzari festan, Plazan.**

# **Zazpi probintzietako dantzariak Hernanin, bederatzigarren Dantzari Festan**

■ Apirilaren 19tik 25era da eta igandekoa izango da egun nagusia ■ Hernanitik Ttarla dantza taldeak, dantzari txikiiek, San Joan konpartsak eta Musika Eskolako musikariek hartuko dute parte.

APIRILAREN 19tik 25era  
izango da Dantzari Festa  
Hernanin eta aurten ere eki-  
taldi asko izango dira, aste-  
lehenetik igandera. Egun  
haundia igandekoa izango da  
eta bertan Gipuzkoa, Bizkaia,  
Nafarroa, Araba, Nafarroa  
Behera, Lapurdi eta Xube-  
roako dantzariak ibiliko dira  
kalez kale dantza erakustal-  
dia egiten. Zortzi dantza tal-  
deek hartuko dute parte igan-  
dean eta horien artean izango  
da *Ttarla* Hernaniko dantza  
taldea ere.

## **Egunero ekitaldiak**

Urteroko moduan Euskal jantzien erakusketa egongo da Biteri kultur etxearen, aste-

lehen, astearte eta asteazke-  
nean 17:00etatik 20:00etara  
eta ostegun eta ostiralean  
17:00etatik 19:00etara. Hiru  
hitzaldi ere izango dira  
Biterin: *Baserritarren Jantzi-ak*, *Uda* eta *Baserritarren Janzkerak*. Dantzara anima-  
tzen diren guztientzat dantza  
ikastaroa izango da ostiralean  
Plaza Berrian, Patxi Perezen  
eskutik, eta larunbat goizean  
kalejira eta Erromeria izango  
dira Tilosetan, Hernaniko  
Musika Eskolako musikariek  
girotuta. Larunbat ilunabarre-  
an, berriz, Donostiako *Eskola*  
dantza taldearen emanaldia  
izango da Biteri kultur etxe-  
an. Igandean egun osoko  
festa dago.

**EGITARAUJA -Apirilaren 19tik 25era**

**Apirilak 19-20-21-22-23**

17:00-20:00

**Apirilak 20**  
15:30-16:30 Hitzaldia: Baserritarren jantziak. Hizlaria: Axen Egaña. Biterin  
19:30 Hitzaldia: Ildia, jaiak eta jantziak. Hizlaria: Javier de Juanes. Biterin

Anirilak 22

**Apirilak 22**  
19:00 Hitzaldia: *Baserritarren Janzkerak*. Hizlaria: Ramon Garcia. Bitera: **Apirilak 23**

19:00 Euska

**Apirilak 24**  
12:00 Kalejira Kaxkoan eta erromeria Plaza Berrian.  
16:30 Dantzari txikien emanaldia Biteri plazan.

20:00 Dantz

**Apirlak 25**  
10:30 Kalejira  
11:00 Dantza talde guztiekin ikurriña dantza egingo dute plazan eta kalejira eta dantza emanaldia Hernanin barrena.  
13:30 Preso eta errefuxiatuen omenezko ekitaldia.  
14:30 Bazkaria Tilosetan.  
17:30 Erromeria Baionako *Harrabost Txarangak* girotua.

## **Literatura tailerra gaur hasi eta asteazkenero**

ANDRAGOTO Ateneoan *Gota Kokorota* literatura tailerra jarriko dute martxan gaurtik aurrera. Tailerra asteazkenero izango da 20:00etan. □

## **Karabel eta Landare arteko bidea itxita egongo da hiru hilabetetan**

UDALTZAINGOAK adierazi du gaurtik aurrera bidea itxita egongo dela Karabel eta Landare-Gureola bitartean. Landarera joateko, Zubiondo zubi berria erabili beharko da, Ibaiondo poligonotik barrena. □

## JUBILATU ETXEA

**Asturiasera joateko  
zozketa gaur, eta  
uzendaritzako urteroko  
aharrun iana ostiralean**

GOIZ Eguzki jubilatu etxeak Santander eta Asturiasera joateko 10 eguneko bidaia antolatu du, maiatzaren 25etik ekainaren 4ra. Bertara joateko zozketa gaur egingo dute, Goiz Eguzkin, arratsaldeko 17:00etan. Bestetik, ostiralean, hilaren 16an, zuzendaritzako urteroko bazkaria antolatu dute. Urtero bezala babarrun jana egingo dute. Eguerdiko 14:00- etan, Goiz Eguzkin. □

## **'Siamesas pero no revueltas' umore emanaldia postiralean Atxur tabernan**

SAIOA Elgezabal eta Bea Aberasturik antzeztuta *Siamesas pero no revueltas* umore emanaldia izango da ostiralean Atxur Tabernan. Emanaldia *Oliver Productionsek* aurkezten du eta beraiek diotenez irauten duen 45 minutuetan parre algara ederrak egiteko aukera izango du inguratzen denak. Iluntzeko 22:30etan hasita, Atxur tabernan. □

A black and white photograph showing a dining room area with a table and chairs, and a television set mounted on a wall unit.

The logo for Ezkerrro Fruituak features the brand name in a large, bold, black, cursive-style font. Below it, the word "Fruituak" is written in a smaller, clean white sans-serif font. To the right of the text is a vibrant illustration of tropical fruits, including a large pineapple, a dark plum or berry, and a bunch of grapes.

The logo for Larre-Gain Sagardotegia is centered at the top of the page. It features a black and white illustration of a traditional wooden barrel with horizontal staves and a circular metal band around its middle. The barrel is positioned above a stylized, curved base or pedestal.



Sagastialdeberriin txakurrak kozkaka soildutako arbola bat.

## Txakur kakak eta txakurrek eragindako txikizioak direla eta, ordenantza bete egin behar dela dio Udalak

■ “Txakur gorotzen presentzia nabarmena” dela ohartarazi du ■ Sagastialdeberriin txakur batek 6.000 euro inguruko kalteak egin dituela ere jakinarazi du.

ANDONI Amonarrai, Zerbitzu Publikoetako zinegotziak Kronikara bidalitako prentsa ohar batean, herniarrei jakin arazi die txakur kaka asko ageri dela Sagastialdeberriin dagoen atletismo pista inguruaren eta baita herriko beste kaleetan ere. Horrekin batera, dio txakur batek “seguru aski jabeak bultzatuta” kalteak eragin dituela Sagastialdeberriko zonaldeko zuhaitzeta. Prentsa oharrak dio 13 direla kaltetu dituen zuhaitzak: 2 errotik aterata eta beste 11 urte honetan zehar hilko direnak. Sortutako kalteen balorazioa ere egin dute eta 5.961,97 euroko kalteak direla adierazi du Udalak.

**Parkeak pertsonentzat**  
Amonarrai zek gogorarazi nahi izan du zonalde berdeak pertsonenek, eta bereziki haurrek, erabili eta gozatzeko guneak direla. “Eta ez da bidezkoa helburu honekin sortutako guneak txakurren gorotzez beteta egotea, honek ez baitie haurrei libre jolasten uzten” dio zinegotziak.

Bestalde, jakinarazten die herritarrei, beharrezko dela animalien gaineko ordenantza betetzea.

**Animaliak edukitzea eta  
babestea arautzen duen Udal Ordenantzak  
beste hainbat punturen  
artean dio:**

- 1) Debekatua dago balkoietan, garajeetan, pabiloietan, sotoetan, zabalzeetan, lorategietan edota bestelako edozein lokaletan animaliak sartu eta gordetzea, baldin eta animaliek auzokide eta oinezkoei beren usain, zikinkeria, ulu edo zaunkekin traba egiten badie.
- 2) Hiriko bide, leku publico eta guztien erabilera rako diren eraikin kolektiboetan, txakurrak kontrolpean eta korrea batekin lotuta eduki behar dira. Korreak egokia izan behar du animalien
- 3) Debekatua dago txakur gorotzak bide eta plaza publicoetan, haur parkeetan, eta oro har jendea biltzen den lekuaren uztea. Txakurraren jabeak edo txakurra daramanak txakurraren gorotza jaso egin behar du. Txakur batek bide publicoa zikintzen badu, herritarrek eskubidea dute txakur-jabeari edo eramaileari zikindutakoa garbi dezan eskatzea.
- 4) Aipatutako artikuluak betetzen ez badira zigor erregimena ezarriko da. Bertan hutsegite arintzat hartzen da txakurren gorotzak leku publicoetan uztea. Honek 60,10 euro eta 300,50 euro bitarteko multa izango du.

**dobEra**  
EUSKARA ELKARTEA

Hernaniko Udala

### DOBERA SARIA II.EDIZIOA

3.000 EUROKO DIRU LAGUNTZA

HERNANIRI BURUZKO LAN BAT  
SARITUKO DA:

- Banaka zein taldeka egin daiteke.
- Lana euskaraz izango da.
- Lana egiteko epea: 6 hilabete.
- Proposamenak aurkezteko epea apirilaren 30a.
- Agiri guztiak Dobera Elkartera bidali behar dira. (Larramendi - 11 ; Telf: 943-332799)

## HITZ BITAN



Iaz etorri ziren Saharako haurrak Hernaniko familia eta lagunekin.

### ✓ SAHARA

**Saharako haurrak udaran etxearen hartzeko au-kera.** 7-12 urte bitarteko haur Sahararrak udaran bi hilabetez etxeen hartu nahi dituztenek izena emateko epea apirilaren 30ean bukatzen da. Hernaniko Udalak antolatutako programa da hau eta adierazi du haurrak direla etorkizunerako eta bakerako itxaropena eta horregatik ezinbestekoa dela zonalde gatazkasuetatik eta hauetan sortzen duten saminetik ateratzea. Haur hauetan, beraien familia eta lagunak bezalaxe, errefuxiatuen kanpamenduan jaio eta bizi dira eta era guztietako beharrak dituzte, janaria, osasuna eta hezkuntzari dagozkionak bereziki. Interesatuek 943-337017 telefonora deitu behar dute edota e-mail bat bidali: irantzu-j@hernani.net helbide eletronikora.

### ✓ MUSA - PEÑA OTAÑO

**Partidak bihar.** Peña Otañoko mus txapelketan partidak izango dira bihar eta bertara joateko zita dute: Igor-Gorka/Eugenio-Garmendia, Aitor-Luis Mari/Vicente-Manolo, Balantxa-Balantxa/Enrike-Linter, Rekalde-Bilbao/Pello-XX eta Alejos-Dabid/Juan Ig-Luis. Hurrengo partidak datorren asteartean, hilaren 20ean izango dira.

### ✓ ASTIGARRAGA

**Artikutzara irteera.** Ostiraleetik igandera Artikutzara irteera antolatu du Astigarragako Xaguxar elkartek. Kultur etxeen eman behar da izena eta 20 euro ordaindu behar dira. □



Artikutzara, abuztuko festa egunean.

### IRAGARKI MERKEAK

Hernani inguruko jatetxe batean barrarako zerbitzari bat behar dugu. Ibilgailua behar da. Deitu: 943 55 02 54 (astelehenetik-ostiralerak) edo 608 12 07 32

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)

10 urteko Ford Escort familiarra salgai. 1.500 euro. 629 76 30 41

### ZERBITZUAK

#### ☎ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udalzaingoa: 943 333288
- DYK: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulutorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

#### + FARMAZIAK

- Egunez: Bilbao-Sagastiberry Urbieta 7  
☎ 943 552941
- Gauetza: Orube Lasarte. Jaizkibel plaza 2  
☎ 943 362652